

## IX. ANTZUOLAKO 8 MILIAK Mendi lasterketa

### ARAUDIA

1. **Data eta lekua:** Antzuolako 8 Miliak-en IX. edizio hau, 2022-ko Otsailaren 20an ospatuko da, irteera goizeko 10:30tan izango delarik.
2. **Ibildibea:** Proba, Antzuolan hasi (244m) eta 7. kilometroan Irimoko tontorrera helduko da, lasterketako puntu altuenera alegia (876m). Ondoren, puntaz punta, Trekutz-era jaitsi eta azken malda gogor bat igo eta gero, beherantz berriz ere Antzuolara jaitsiko da.

Lasterketak 13,83 kilometroko distantzia izango du eta 836m-ko desnibel positiboa.

Ibilbidearen gaineko informazio gehiago ondorengo internet helbidean aurki daiteke:

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=3948813>

Antolakuntzak, lasterketaren irteera ordura arte, honen ibilbidea aldatu edo berau bertan bera uzteko eskubidea izango du.

3. **Parte-hartzea:** Lasterketa egunean 16 urtetik gorako atleta, mendizale eta kirolari guztiek izango dute proban parte hartzeko aukera, beti ere arautegi honetan adierazitako gutzia onartu eta zehaztutako baldintza guztiak betetzen badituzte.

16 eta 17 urteko lasterkariak, izena ematerako orduan, gurasoen baimen orria bete eta [antzuolako8m@gmail.com](mailto:antzuolako8m@gmail.com) e-postara bidali beharko dute. Hau egin ezean erabat debekatuta izango dute lasterketan parte hartzea.

Lasterketako ibilbidean dabilen, eta lasterketan izenik eman ez duen inori gertaturiko ezeren erantzule ez da izango antolakuntza.

Izen ematea pertsonala eta besterenganaezina izango da.

Gehienezko parte-hartzea 280 lagunekoa izango da, non Kirolprobak pataformaren bitartez egin ahalko den gehienezko izen ematea 250 lagunekoa izango den. Falta diren dortsalak antolakuntzak bere gain hartuko ditu izan ditzaken konpromisuendako.

4. **Mailak: (Proba ospatzen den egunean duten adina)**

- Gizonezkoen maila.
- Emakumezkoen maila

5. **Izen-emateak eta prezioak:** [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrialdean egingo dira, urtarrilaren 8tik (9:00), otsailaren 18rarte (23:59). Data hauetan egiten diren izen emateak 10€-ko kostua izango dute (izen-ematetik astebeteren barruan ordainketa egiten ez bada, betiere Otsailaren 18-a baino lehen, izen ematea bertan behera geratuko da). Dorsalik libre egonez gero, lasterketa egunean ere izen emateak egin ahalko dira 15€-ren truke, 10:15-ak arte.

Diru zenbateko hauek, zera bermatzen dute:

- Proban parte hartu ahal izateko eskubidea.
- Erantzukizun zibileko aseguruia eta ezbeharretakoa.
- Antolakuntzak parte hartzaileendako atondutako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.

- Antolakuntzak probarako lor ditzakeen sarien zozketan parte hartzeko eskubidea.
- Proban zehar, nahiz amaitu eta gero izango diren hornidura puntuen erabilpena egiteko eskubidea.
- Proban egongo den kontsigna zerbitzuaren erabilpenerako aukera.

6. **Seinaleztapena:** Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da, kartel adierazleekin eta ageriko baliza-zintekin.
7. **Kontrolak:** Irimoko tontorrean kontrol gune bat egongo da. Bertatik pasatzea ezinbestekoa izango da, bertan egongo baitira arauzko igarotze kontrolak.
8. **Hornidura:** 2 postu atonduko dira helmugakoaz gain, 4,8km eta 9. kilometroetan hurrenez hurren. Bertan, besteak beste edatekoa eta jatekoa eskainiko zaie lasterkariei.
9. **Igarotze denborak:** Korrikalariak, gehienez ere, 2h30' denbora izango dute lasterketa amaitzeko. Hau horrela, denbora hau gainditzen duten parte hartzaileak, behin betiko sailkapenean agertzeko aukera oro galdetuko dute.

Edonola ere, antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik baztertzeko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:

- Kronometraje-kontrol ezberdinetan egitea espero den denborak betetzen ez dituztenean.
- Probako arauak hausten dituztenean.
- Ezarritako ibilbideari zehatz-mehatz lotzen ez zaizkionean.
- Erregelamenduzko dortsala ondo ikusteko moduan ez daramatenean.
- Antolatzailerik esandakoari jaramonik egiten ez diotenean.
- Gainontzeko korrikalariak kiroltasunez jokatzeko ez dutenean.

Baztertua edo kanporatua den parte-hartzaile orok gertuen duen kontrol gunean eman beharko du bere dortsala eta antolatzailerik agindu bezala utzi beharko du proba.

10. **Sariak:**

**Gizonezkoak:**

1º Garaikurra eta Txapela

2º Oparia

3º Oparia

**Emakumezkoak:**

1º Garaikurra eta Txapela

2º Oparia

3º Oparia

**Herriko lehen gizonezko zein emakumezkoari ere saria emango zaio.**

11. **Sailkapenak:** Sailkapenak, ahal bezain azkar argitaratuko dira [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrian.

12. **Dortsalen banaketa:** Dortsalak, lasterketako egunean bertan, hau da, Otsailaren 20an, irteera puntu batuko dira (Herriko plazan). Goizeko 8:45-etan hasi eta 10:00-ak bitartean.
13. **Ingurumena:** Lasterketa, bere zatirik handiengan, edertasun natural handiko parajeetatik igarotzen da. Hori kontutan izanik, mesedez eskatzen da, ingurunea ahal beste zaintzeko. ZABORRAK, HORNIDURA GUNEETATIK KANPORA BOTATZEA ERABAT DEBEKATUTA EGONGO DA. **Oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro, probatik kanpora utzi ahal izango da.**
14. **Osasun laguntza:** Antolakuntzak, sorospen eta salbamendu zerbitzuak jarriko ditu ibilbideko puntu estrategikoetan.
15. **Segurtasuna:** Antolakuntzak, ibilbidean, beharrezkoak ikusten dituen aldaketak egiteko eskubidea izango du. Beti ere, probaren egunean izan daitezken arrazoi ezberdinak, parte hartzaileen segurtasuna arriskuan jartzen badute. Eguraldia, ibilbidearen momentuko egoera...
16. **Laguntza ezbeharretan:** Parte-hartzaileek, betekizun izango dute istripuren bat izan duen edonori laguntza eskaintzea, eta kontrol gune zein anoa postuetan ezbeharren berri ematea.
17. **Erantzukizuna:** a- Antolatzaileek izen emandako korrikalarietako erantzukizun zibileko aseguruia eta istripu aseguruia izan dezatela arduratuko da eta hortik aurrera eman daitezkeen ezbehar eta arazo ezberdinen aurrean erantzukizunik ez dagokiola onartuko du frogan honetan izen ematen duen edonork.  
b- Frogan izenik eman gabeko norbaitek parte hartuko balu antolakuntza eta aseguruia ez dira gerta dakioken ezbeharren aurrean kargu egingo.
18. **COVID:** Antolakuntzak momentuan dauden Covid arauak betearaziko dizkio lasterkari orori. Eguna gerturatu ahala bete beharreko arauak helaraziko dira. Hauek ez betetzeak, lasterkaria kanporatzea ekarriko du.
19. **DOPINA:** Parte hartzaileak kirol garbira atxikiko dela onartzen du.

**Kirol garbiaren alde. Tranparik ez!**

**A8M Antolakuntza**